

## BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

4446

*AGINDUA, 2023ko irailaren 19koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez argitara ematen baita 2023ko ekitaldirako 2023-2027ko aldirako Nekazaritza Politika Bateratuaren Plan Estrategikoaren (NPBPE) esparruan onartu ziren Leader eremuko landa-inguruko udalerrien ekonomia sustatu, garatu eta dibertsifikatzeko laguntzen zenbatekoa.*

Estatu-kideek NPEren esparruan egin behar dituzten plan estrategikoetarako laguntzari buruzko arauak ezartzen dituen (EB) 2021/2115 Erregelamenduaren 2. artikulua arabera (NPBPE erregelamendua), Partaidetzazko Toki Garapena LGENFk finantzatzeko laguntzari aplikatuko zaio. Horrenbestez, funtsezkoa da tokiko ekintza-taldeak, tokiko erkidegoaren interesak ordezkatzeko dituztenak, tokiko partaidetza garatzeko estrategiak diseinatu eta betearazteaz arduratzea.

Hala ere, lurralde-estrategiak agintari eta erakunde eskudunen erantzukizunpean garatu eta babestu behar dira, horiek izanik hautaketaz arduratuko direnak. Ondorioz, kudeaketa-agintaritzak estrategia horiek hautatzeko irizpideak zehaztuko ditu, hautaketa egiteko batzorde bat osatuko du, eta batzordeak aukeratutako estrategiak onartuko ditu, (EB) 2021/1060 Erregelamenduaren 32.2 artikulua arabera.

Hala, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko maiatzaren 9ko Aginduaren bidez, oinarri arautzaileak onartzen dira partaidetzazko toki-garapeneko estrategiak eta Euskal Autonomia Erkidegoan horiek kudeatzeko ardura duten tokiko ekintza-taldeak hautatzeko, 2023-2027 Nekazaritza Politika Bateratuaren Plan Estrategikoaren (NPBPE) esparruan.

Xedapen iragankorraren arabera, 2023an, harik eta 2023-2027 nekazaritza-politika bateratuaren plan estrategikoa (NPBPE) Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeko xedapenak ezartzen dituen esparru-dekretua argitaratzen den arte (une honetan izapidetzen ari da), agindu bidez tokiko ekintza-taldeak Leader deialdia kudeatzeko erabilgarri duen zenbateko ekonomikoa jakinarazi eta argitaratuko da.

Ondoren, esparru-dekretua izango da euskarri juridikoa, eta, besteak beste, EAEn ezartzen diren esku-hartzeetarako laguntzen deialdien edukia jasoko ditu. Horiek, dekretuan jasotako berezitasunez gain, 2023-2027 nekazaritza-politika bateratuaren plan estrategikoaren (NPBPE) edukia aintzat hartu beharko dute deitutako esku-hartze bakoitzerako, eta finantzaketa-araubidea eta funtsen jatorria adierazi beharko dituzte.

Horren arabera, honako hau

### EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Argitara ematea Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko maiatzaren 9ko Aginduaren arabera aukeratutako tokiko ekintza-taldeek kudeatuko dituzten Leader deialdiko laguntzak artatzeko 2023ko ekitaldiko gehieneko zuzkidura orokorra –Agindu horren bidez, oinarri arautzaileak onartzen dira partaidetzazko toki-garapeneko estrategiak eta Euskal Autonomia Erkidegoan horiek kudeatzeko ardura duten tokiko ekintza-taldeak hautatzeko, 2023-2027 Nekazaritza Politika Bateratuaren Plan Estrategikoaren (NPBPE) esparruan–.

2023ko irailaren 27a, asteazkena

Deialdi hau finantzazera bideratutako aurrekontu-zuzkidura «Nekazaritza eta Landa eta Itsasertzaren Garapena» izeneko aurrekontu-programaren (7111) parte da, eta 5.182.500,00 eurokoa da, honela banatuta:

– 2.500.000,00 euro Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kargura, 2023. urterako; horietatik 1.829.375,00 euro Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kargura izango dira, Batzordeak Espainiako NPBPE 2023-2027an onartutako finantzaketa osagarri eta gehigarri gisa.

Bestalde, 670.625,00 euro, LGENF zenbatekoa osatu eta kofinantzatzeko, funts publikoen gainerako % 20an.

– 2.682.500, LGENFek kofinantzatuta, % 80an.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko irailaren 19a.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua,  
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.